



## **Zaintzadi, zaintza ekosistema publiko-komunitarioa sortzeko proiektua jarri du martxan Oartzungo Udalak.**

- **Hautazkoa ez den bakardade egoeran dauden Oartzungo helduen bizi kalitatea hobetu nahi du egitasmoak.**
- **Zaintza sarea hobetzea eta auzolanaren izaera auzozaintzara eramatea da egitasmoaren helburua.**
- **Oartzuarrak eta bertako eragileak helduen zaintzan eta inklusio komunitarioan agente aktibo izatea bultzatu nahi du proiektuak.**

### **Oartzun, 2022ko uztailak 22.**

Herrietan hautazkoa ez den bakardadea bizi duten pertsona helduen zaintza komunitarioa arazo larria bihurtzen ari da. Biztanleriaren zahartzeak, komunikazio eredu berriek, pandemiak, komunitate izaeraren galerak... bakardade egoera ez bilatuan bizi diren pertsona kopurua handitzea eragin dute. Egoera hau bizi duten pertsonen errealitatea ikusezin bihurtzen da gure gizartean.

Hautazkoa ez den bakardade honek sortzen duen tristura eta ondoezak eragin zuzena du osasun fisiko eta psikologikoan, babes gabe uzten gaitu eta mendekotasun eta gizarte bazterketa egoerak areagotzen ditu.

Oartzun dispertsio geografiko handiko herria da. Biztanleriaren erdia herrigunetik kanpo bizi da eta honek bakarrik bizi diren pertsona kopurua handitu eta haien egoera okertu dezake. Egoera honek kezka sortzen du Oartzungo Udalean eta horregatik Zaintzadi proiektua martxan jartzea erabaki du.

### **Helburua: bakardadetik komunitatera, bizi kalitatea hobetzeko**

Baliabide gutxi dituzten eta hurbileko senide edo inguruko pertsonen laguntza jasotzen ez duten 55 urtetik gorako pertsonen behar sozial eta psikikoei erantzuteko esku hartze sozio hezitzaile eta komunitarioa martxan jarriko du Udalak proiektu honekin.

Bakardade egoera zaurgarrian dagoen pertsonaren beharrak eta motibazioak ulertu eta hauei egokitutako plan pertsonalizatu eta progresiboa jarriko da martxan: komunitateko gainontzeko pertsonekin harremana sustatzea, Udalak zein herriko eragileek eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzuen inguru informazioa eskaintzea (herriko kultura eta kirol eskaintza, bertako elkarteak eta zerbitzu publikoak azaldu) eta hauetan parte hartzea hauspotzea izango dira helburuak, horrela, etorkizunean bere bizitza komunitatean modu autonomoan garatu dezan.

### **Proiektu berritzailea: prebentziorako teknologia eta aktibazio komunitarioa**

Bakardade egoeran dauden adineko pertsonak detektatzeko informazio sistema eta haiei zuzendutako esku hartzeko sozio hezitzailea eta komunitarioa uztartzen dituen proiektu bakarra da hau.

### **Teknoadineko: detekzio goiztiarrerako informazio sistema**

Teknoadineko, bakardade egoera hauskorrean dauden 55 urtetik gorako pertsonak antzemateko sistema informatikoa da. Datu eta adierazle ezberdinez elikatzen da (osasun eta adierazle ekonomikoak, etxebizitzaren kokalekuaren eta laguntza baliabideen arteko distantzia,,,) eta hauei esker prebentzioa eta esku hartze goiztiarra martxan jartzeko aukera egongo da, zaurgarritasun egoera kritiko bihurtu aurretik.

### **Herritarren parte-hartzea, proiektuaren arrakastarako gakoa**

Martxan jarri nahi den esku hartze eredua da proiektuaren berezitasun nagusia: Udalaren eta herritarren elkarlana bultzatuz, babesgabetasun egoerei aurre hartzea izango da helburua.

Herriko eragile eta norbanakoen parte-hartzea beharrezkoa izango da zaintza sareak sortu eta bakardade egoera hauek detektatu eta lantzeko.

“Auzozain” bezala ezagutuko diren oiartzuarrek proiektuan parte hartzeko bi modu izango dituzte:

- Bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonen berri emateko edo proiektuan parte hartzen dutenengan ezohiko zerbait nabaritzen gero (ez bada etxetik ateratzen, egoera fisiko edo animikoa okertu bazaio...), informazio hau Ongizate Sailera bidaltzeko aukera izango dute aplikazio baten bitartez.
- Proiektuan parte hartzen duten pertsonekin eguneroko jardura ezberdinak elkarrekin egiteko aukera izango dute: kultur ekitaldietara elkarrekin joan, paseoa edo kirola batera egin, bankura edo farmaziara lagundu...

Auizozainak izango dira hautazkoa ez den bakardade egoeran dauden pertsona hauek komunitatera birkonektatzen lagunduko dutenak, gizarte hezitzaileen jarraipenarekin.

### **Bi urteko proiektua**

Bi urteko lana izango da zaintza ekosistema osatzea. Fase nagusi hauek izango ditu:

1. Programaren diseinua eta herriaren diagnosia: “Teknoadineko” tresnari esker, Oiartzunen hautazkoa ez den bakardade egoera dauden pertsonak antzemango dira. Beraiekin harremanetan jarri eta proiektuaren berri emango zaie, hala nahi badute, beraien beharrak eta interesak ezagutu eta esku-hartzea proposatzeko.
2. Aktibo komunitarioaren identifikazioa eta aktibazioa: Oiartzungo aktibo publiko-komunitarioak (zerbitzu eta ekipamendu publikoak, auzo elkarteak, kultur eragileak, aisialdi taldeak, eragile sozialak, komertzio txikiak, ostalaritza, farmaziak...) identifikatu eta zaintza ekosistema sareko parte izatea proposatuko zaie. Eragileez gain, norbanako bolondresekin ere saio irekiak egingo dira.
3. Esku hartze sozio hezitzaile eta komunitarioa: proiektuan parte hartu nahi duten pertsonen esku-hartzea diseinatuko dute hezitzaileek eta auzozaineekin elkarlana sustatuko da.

### **Baliabideak eta aurrekontua**

Bi gizarte hezitzailek dinamizatuko dute proiektua, Udaleko Ongizate sailarekin elkarlanean. 199.875,57 €ko aurrekontua izango du. Udalak 70.257,5 € bideratuko ditu eta gainerakoa Gipuzkoako Foru Aldunditik lortutako diru laguntzarekin finantzatuko da.

**OLAIA LASA, ONGIZATE ZINEGOTZIA:** “2019an esan genuen zaintza eta ongizatea izango zirela gure ildo estrategiko nagusiak. Ekimen ezberdinak martxan jarri ditugu; hala nola, etxetzeko zerbitzua indartu, zaintza komunitarioaren proiektu pilotu batean parte hartu, gizarte zerbitzuetako lanpostuak egonkortu... Eta orain abiatuko den proiektua 55 urtetik gorakoekin hasiko badugu ere, gure erronka izango da adin tartea zabalduz joatea, herritar ororengana heltzeko. Martxan jartzera goazen proiektu hau aurrerapauso garrantzitsua da: Udala eta herriaren artean elkar zaintzeko egitasmoa, guztion ardura baita herritarron ongizatea.

Hori dela eta, zaintza ekosistema sare publiko-komunitarioko bolondres taldea sortu, egonkortu eta dinamizatzea da gure apustua, elkarrekin aurrera egingo duen herria sortzeko.”

**Informazio gehiago:**

Beñat Badiola Ostolaiz  
[bbadiola@oiartzun.eus](mailto:bbadiola@oiartzun.eus)  
943 49 01 42  
608 46 18 64